



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 85. alea 2004ko otsailaren 27a

Mozorro lehia,
mara maraz jantzita
lurra garaile



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoa: Oitxurri Arda Denda

Gabolatz kalea 28 - Telefona: 605768151 -

*“Tabernetara saltziaz gain
etxietarako ekonomikua be
badaukagu. 15 Litrokoa da
gehixen saltzen doguna”*

Naiara Corchero

-Noiz zabaldu zenuen dendia?

Oindala hiru urte zabaldu genduan dendia,
2001.urtian.

-Zenbat pertsonak egiten dozue lan bertan?

Langile bakarra neu naiz.

-Zela zabaldu zenuen dendia?

Nere aita pertsona batzuei fabore moduan
Errioxatik ardaa ekartzen hasi zan eta azkenian
denda zabaltzen amaitu genduan.

-Zer eskeintzen dau Oitxurrik?

Hemen ardaa saltzen dogu, baina tabernetara
saltziaz gain, etxietarako ekonomikua be
badaukagu, etxietara gehixen saltzen dana 15



litroko kupela da. Ardauz gain, beste porduktu
batzuk be badauzkagu; atuna, zainzuriak,
piparrak eta holako produktuak.

-Nun saltzen dittuzue zuen produktuak?

Momentuz herrixan egitten dogu lan, baina
aurrera begira alboko herrixetara zabaltzeko
asmua daukagu.



LOIOLA ALTUNA

Hoge urtetik gorako plaentxiatar gutxi izango dira, bizitzan behin behintzat, Gilako zubiaz harro harro hitzegin ez dutenak. Badakizue, munduan aparkalekuak dituen zubi bakarra zela (bueno, Japonian ere bazegoen besteren bat); eta hori gutxi balitz iturri bat zuela, exerlekuz inguratuta gainera.

Kanpotar batek, gure herriaren estetikaz (edo, hobe esanda, estetika ezaz) hitz egiten zuenean, berehala jasotzen zuen erantzuna: Plaentxia, zatarrak? Izan leike, baina zuek autoentzako aparkalekurik duen zubirik baduzue? eta (porsiakaso) iturririk? eta exerlekurik? Ja!

Beste kontu bat litzateke zorieko zubiaren azpitik doan errekeri buruz hitzegitea. Akabo harrokeriak. Ba al dago, Deba Ibaia garbia ikusi duen 50 urtez azpiko irakurlerik? Egunak, hilabeteak, urteak, egunero egunero kutsatutako ura itsasora bidean. Ohituraren poderioz, normalizat hartu dugu gure herria bitan zatitzen duen errepede nagusia kakaztuta ikusteak. Gainera, orain dela 15 bat urte gaztetxe parera ekarritako paitxa familiak, ugaldu, biderkatu, eta kutsu ekologiko bat eman dio herri paisaiari. Nondik ekarri zituzten galdetu behar; kutsaduraz jositako ingurunean ugaltzeko erakutsi duten erreztasuna kontutan hartuz, ACCION MUTANTE pelikulako kasting-etik ote?.

Noski, bizitza osoan zehar ibaia zikina ikusteak, badu alderdi instruktiborik ere. Konturatu al zarete gure Deba gaixoak zenbat kolore ezberdin izan dituen?: "Ikusi, ikusi! gaur morea dator!". "Hala!, gaur berdea!". Nik gustokoen nuena laranja kolorea

zen dudarik gabe. Bestalde, poteoan hasteko garaia iritsi, lehen zuritosa eskatu eta konturatu ginen APARRAK OSASUNARI KALTERIK EZ ZIOLA EGITEN! Harrigarria, hainbat urtetan batzokipean biltzen ziren apar puska handi eta konpakto haiek ikusi eta gero.

Kontuak kontu, ez dirudi agintariak Deba ibaiaren kutsadurakonpontzeko ahalegin handirik egingo dutenik datozen urteetan. Behin baino gehiagotan irakurri dut Deba ibaia garbiezina dela. Ez duela bueltarik. Kontutan hartuta inguruko beste ibai batzuk garbitzeko egindako ahaleginak, (Oria, Urola behea...), gastatutako dirutza eta lortutako emaitza dextenteak, ez dut ulertzen zergaitik Deba ibaiaren kasuan behinbetirako garbiketa lortzeko inolako ahaleginik ez den egiten. Agintariok, seguru ahal zaudete XXI. mendean sartuta, ibai hau garbitzeko modurik ez dagoenik? Noski, beti izango dugu eibartar azkar hoiek arazoa konpontzeko hartutako erabakia kopiartzeko .aukera: ERREKIA TAPAU!

Nere aitak Olan ikasi zuen igeri egiten. Bai, azken zuba egin duten inguru hortan. Gustora entzun ditut bertan gertatutakoekin historioak; peskan egin eta soziedadian egiten zituzten afariak, munizipalek legez kanpoko sareak erabiltzeagaitik jartzen zizkieten multak.... Kanpotar bat zetorreanean, ez zuten, harro-harro, aparkalekuak dituen zubi bati buruz kontu-kontari ibiltzeko aukerarik, Gilako zubi berria ez bait zegoen oraindik eraikita. Bost Axola! Errekara joan, bainujantzia ipini, uretan sartu eta presatik salto egiteko aukera zuten. Zuek aukeratu.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. zer barri?. Stop. mozorro lehiaketan euro batzuk etaratzeko aukeria ikusi eta zast!. Stop. ikasbidaikuak baino bixkorrago ibili eta. Stop. lurra be mozorrotu da lehian sartzeko. Stop. baina ez dosku Pedriren mozorruen moduko sorpresarik emon. Stop. hainbeste iragarri dabe. Stop. eze, emozioño dana galdu dau azkenian. Stop. tira, dan dana bez. Stop. edurrak beti emoten dosku ikutu berezi bat bihotzian. Stop. batez be epeletan egon geinkezenoi. Stop. beste askori hotza galanta. Stop. herriko farolak be jantzi jakuz. Stop. haikuz. Stop. poesia. Stop. pentsamenduz. Stop. irudiz. Stop. sentimenduz. Stop. bizi garala konturatu gaittezen. Stop. nun bizi garen konturatu gaittezen. Stop. eguneroko gertakizun txikixei begiratu deixogun. Stop. dirulaguntzarik barik. Stop. bihotza begi truk. Stop. egin egitiarren. Stop. poz emotiarren. Stop. anonimoki. Stop. moki. Stop. ameslarikiro. Stop. antzerki ikastaroan izango den giroaren moduan. Stop. sagardotegiko jaigiroaren moduan. Stop. Peperen hauteskunde kontakizunen moduan. Stop. ameslarikiro!. Stop. Azkonaren jauzi. Stop. eta Laskurainen pelotakada bakoitzaren pare. Stop. zerutiar. Stop. nahiz batzuetan zerutik etortzen den heriotza. Stop. bestela galdetu. Stop. beleek begi biak atera zizkieten Izarre baserriko bildots gazteari. Stop. argi ibili beleekin!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarteak

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurrutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Zorion agurrak



Ion Urdangarin eta Laura Larreategi
Martxoaren 9an eta 8an
ZORIONAK!!!
Ederki pasa zuen egunean muxu haundi bat.
Atatxoren partez.



Ione Blanco eta Miren Blanco
Martxoaren 6an eta otsailaren 28an
ZORIONAK BIKOTE!!
Beti bezain alai eta umoretsu jarraitu.
Etxekoan partez.



Gorka Tornos
Otsailaren 20an 19 urte
ZORIONAK !!!
Ea behingoz ile hoiek
mozten ditugun.
Etxekoan partetik.



Oihane Vila
Martxoaren 9a
ZORIONAK
PARRANDERA!!
Jarraitu horrela eta
muxu haundi bat.
Etxekoan partez



Ane eta Margari
Otsailaren 27a
ZORIONAK
Horrela jarraitu bikote eta muxu haundi
bana.
Etxekoan partez
Miguel Aparicio
Martxoaren 5a
ZORIONAK!!
Ondo pasa eta muxu haundi haundi
bat. Espe eta etxekoan partetik.



Julene Zabala
Otsailaren 25an 6 urte
ZORIONAK POTXOLA!!
Dagoeneko 6 urte bete ditu-
zu beraz askoz zintzoagoa
izan zarela espero dugu.
Etxekoan partetik.



Eneko Arizaga
Martxoaren 3an 12 urte
ZORIONAK!!
Egun zoragarri bat
pasau deizula. Asko
maitte zaitugu.
Etxekoan partetik.



Maitane Rodriguez
Martxoaren 13an 5 urte
ZORIONAK!!
Estazioko bodegako
neskatilarik politenari!
muxu haundi bat!
Etxekoan partetik.

OHARRA

Pil-pilean Herri Aldizkariak gogorazi nahi dizue, aldizkarian zorion agurren bat edo eskertzen bat argitaratu nahi izanez gero, Iratxo Goxodendan edo Kontzejupeko buzoian laga dezakezuela argazkia eta mezua. Argitaratu ostean, argazkia Iratxo Goxotegian eskuratu ahal izango duzue berriz. Bestalde, aurreko aleko (84.a) "Zer irizten dotsazu" ataleko galdera oker idatzita zegoela ere jakinarazi nahi genuke, "Zer eruditzen zaizu udaletxeak aurrekontuak egiteko modua?" beharrean, "Zertan gastatu behar luke Udalak diru gehiago 2004an?" zen eta, galdera zuzena.

jaiotakoak

Urko Aizpuru Aldazabal
Oier Esnaola Cifuentes
Nora Urkiri Oruesagasti
Ander Zabala Iraoagoitia
Lore Murgizu Bedayo

hildakoak

Xabier Iñurrieta

ezkonduak

Jesus Manuel Plata Benito eta Alazne Arizaga Arenaza (04-02-07)
Alberto Larrañaga Macias eta Ainhoa Marcheta Zubiaurre (04-02-21)

Gutunak

BATZORDEA INFORMATZEKO

Idatzi honen bitartez aurreko Pil-Pileaneko alean azalduko eskutitzari buruzko azalpena ematea nahi nuke. Arizaga jaunak adierazten duen bezala, badirudi Nekazaritza eta Ingurugiro batzordearen berri, Pil - Pilean herri aldizkariaren bitartez jasotzen duela eta ez alor honi dagokion batzordetik. Honi dagokionez esan beharra daukat, legegaldi berriari hasiera eman genion momentuan argi eta garbi azaldu nituela zeintzuk izango ziren jarraituko genituen pausoak eta proiektu konkretuak. Proiektu hauen artean "Soraluze

baso bidez " izeneko egitasmoa isladatzen zelarrik. Proiektu honi buruzko informazioa eta jarraitu beharreko pausoak zeintzuk izango ziren zehaztuz eta azalduz .Nire asmoa batzorde partehartzaile izatea da, ekarpen berriei zabalduko. Beraz atxikitzen zaidan informazio faltaren aurrean nire ez adostasuna azaltzea nahi izan dut lerro hauen bitartez . Besterik gabe adierazi nahi dut nire batzordearen ateak zabalik daudela bai informazioa jasotzeko eta emateko ere.

Iker Aldazabal Basauri
EAJ-ko Nekazaritza, Ingurugiro eta Hirigintzako zinegotzia



LEHIAKETAK

Komikia

Portugaleteko Udalak Portugalete Uri Urena XVIII. Komiki Lehiaketa antolatatu du. Bertan edonork har dezake parte, inolako murrizpenik gabe, bai bakarka, bai gidoiari-margolari bikotea ere. Aurkeztutako lanen gaia askea izango da, baina bere protagonistak originalak, norberak asmatuak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Hiru modalitate: komikia, komiki-tira eta on-line komikia. 5.000 euro saritan. Epea: martxoak 5

EKINTZAK

Sagarrondotik

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak SAGARRONDOTIK 04 jaialdia antolatatu du, sagardoaren kultura bultzatu eta bermatzeko helburuarekin. Hernani, Astigarraga, Usurbil eta Urnieta bertsoz, antzerkiz, herri kirolez, musikaz eta euskaraz blai izango dira otsailak 26tik 29ra bitartean. Ekintzarik nagusienetakoak otsailaren 27 eta 28an Hernanin izango diren kontzertuak: Fito & Fitipaldis, Su Ta Gar, Reincidentes, Orisha's, Fermin Muguruza kontrabanda, Ojos de Brujo, Kuraia, Ari. www.sagarrondotik.com

Antzerki Jardunaldiak Eibarren

Narruzko Zezen eta Uni Kultur Elkarteak antolatuta, XXVII Antzerki Jardunaldiak ospatzen ari dira Eibarren. Martxoak 29a bitartean 23 antzezlan ezberdin antzeztuko dira Hezkuntza Esparruko Antzokian (Unibertsitate Laborala). Sarrerak funtzioa hasi baino ordubete lehenago eros daitezke lehiatlan.

LANA

Berdintasunerako aholkularia

Bilboko Udalak berdintasunerako aholkulari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa librean antolatatu du. Baldintzak: doktoregoa, lizentziatura edo titulu baliokideren bat edukitzea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: martxoak 5

Euskara-Teknikaria Ordizian

Ordiziako Udalak Euskara Biziberritzeko Plana Ordizian garatzen laguntzeko teknikari bat 2004-2007 denbora aldirako kontratatatzeko oposizio-lehiaketa librean antolatatu du. Baldintzak: goi-mailako Batxilergo titulu edo baliokidea eta euskarako 4. hizkuntza eskakizuna izatea. Epea: martxoak 8.

Zer irizten dotsazu?

Kataluniako ERC alderdiko Carod-Rovirak ETArekin izandako elkarrizketaren berriak soka luzea ekarri zuen atzetik. Joan zen asteazkenean ETAk su-etena iragarri zuen Kataluniarendako eta horrek izugarritzko iskanbila sortu du Espainiar Estatuan.

Zer deritzozu Katalunian su etenaren inguruan sortu dan egoeriari?



Anparo Iburguren
51 urte
irakaslia

Robira ETAn elkartzia ondo iruditzen jata. Ulergaitza iruditzen jata bestealde, holako zalapartia sortu izana irtenbiderako modu bat izan leikialako eta bide hortan oztokuak jartzia ez jata bape ondo iruditzen.



Tomas Ramos
60 urte
jubilatua

Neri ondo iruditzen jata ETAn elkarrizketatu izana, horixe dalako arazua konpontzeko bidia. Alderdi politikuak, betiko moduan, bakoitzak bere iritzixa emon dabe, danak iritzi desberdina.



Xabier Kirueta
18 urte
ikaslia

Alderdi politiko gehixenak txartzat hartu arren, gauza positibua dalakuan nao ni. Madrilekueri dagokixonez, iruditzen jata amorratu erain dittuana, su-etena Kataluniandako izatia izan dala.




Kari Rascon
45 urte
etxekoandria

Gobernuan eta bere inguruan sortu dan zalaparta dana txarto iruditzen jata. Elkarrizketian bidia zabal-tzia ondo iruditzen jata, baina gobernua ez dago hori bultzatzeko prest eta ahal daben guztia egingo dau prozesua geldiarazteko.



Marian Bejil
43 urte
aeroibic monitoria

Neri Robiran jokabidia ona iruditzen jata oso eta PPna berriz txarra, egoeriari probetxua etaratzia nahi dotsalako, ez besterik. Nik uste dot danak nahi bihar leukiena arazua konpontzia dala, eta berba eginez konpondu baldin baleike askoz hobe.



Luis Ariznabarreta
34 urte
estanzailia

Hainbesterako ez dan gauza bat lekuz kanpo etara dabe eta hori hauteskundiak gainan darelako izan leike. Iruditzen jata hipokresia batian garela.



HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Bazterrak ongi zuritu ditu elurrak



Aurten, aspaldiko partez, herriko kaleak ere zuritu ditu elurrak. Azken asteotan bi aldiz egin digu bisita edurrak. Bigarren bisita izan da gogorrena baina ur-

tean behin eta asteburuan, ederra da elurra ikustea. Batez ere gaztetxoek gozatu dute gehien, eskuak hotzez gorritu arte jardun dute eta elkarri edur bolak tiraka.

PP jubilazio malguten alde



Joan zen ostegunean, Alderdi Popularrak, "pentsioen oraina eta geroa" izenburupean, hitzaldia eskeini zuen Kiroldegian. Bertan izan ziren, Julia Tercero PPko bozeramailea Legazpiko Udalean eta Senaturako hautagaia, Jose Eugenio Azpiroz, PPko diputatua Gipuzkoatik eta Kongresurako hauta-

gaia, eta Gonzalo Quiroga, PPko diputatua Gipuzkoatik eta Kongresurako hautagaia dena.

Azpirozek, alderdi popularrak bere agintaldian lortu dituen emaitzak laburbildu eta jubilazio malguten aldeko eta aurrejubilazioen kontrako politika eskeiniko dutela aurreratu zuen.

Asteon telebista aldizkaria kalean



Otsailaren 27an kaleratuko da Asteon telebista aldizkariaren lehen alea. Asteon, Euskara Elkartearen Topaguneak (Pil-pilean bazkide da) sortutako telebistaren inguruko euskarazko astekaria da. Euskaraz sekula egin den zabalkunde handieneko aldizkaria izango da, hasieran 75.000 ale banatuko dira, baina urtea amaitu baino lehen, 100.000 alera iristekotan dira.

Oraingoz, Pil-pileanek ez du herrian banatuko baina ez dute baztertu urtea amaitu aurretik herrian banatzeari ekitea.

Bildotsari begiak atera dizkiote beleek



Oraindela bi hiru aste, Izarre baserriko bildots jaio berri bati bi begiak atera zizkioten beleek zelaian zebilela. Izarre baserriko Julik adierazi digunez, "aspaldixan izugarri ugaldtu dira beliak". Bildotsa odol hustu egin zen begietatik.



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es
etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150

Faxa: 943752118

SORALUZE

Antzerki ikastaroa martxoan

Martxoaren 20, 27 eta Apirilaren 3an, goizeko 10:30etatik 13:30etara bitartean, antzerki tekniken ikastaroa antolatuko du Pil-Pileanek. Antzerkiari ekiteko oinarriko teknikak ikasteaz batera talde dinamika ezberdinak egingo dira ikastaroak iraungo duen hiru larunbatetan zehar. Parte hartu nahi duenak, Pil Pileaneko 943 751304 telefonora deitu besterik ez du Martxoaren 16a baino lehen, izen emateak 10 euroko prezioa izango du bazkide ikasle eta langabetuendako eta 15 euro gainontzekoendako. Ikastaroa Kiroldegian emango da.



Manu Azkarateren askatasuna eskatzeko Udalaren mozioa

Otsailaren 17an Udal Batzarrek egindako ez ohiko saioan, Manu Azkarate aske uztea eskatu eta senideei elkartasuna adierazten dien mozioa (EAJ eta EAK aurkeztutakoa) onartu zuen Udalbatzarrek, EAJ, EA eta AHen aldeko eta PSEE eta PPren aurkako botuekin. Aurretik AHek aurkeztutako mozioa ez zen onartu.

Izartu II osatzen

Udaleko Hirigintza batzordeburuak jakinarazi digunez, Udala, Izartu Egitasmoari jarraipena emango dion 2. proiektu bat ari da prestatzen Jaurlaritzari eskaera egiteko. "Herrigune historikoa" izango da jardun eremu nagusia.

Ikasbidaikoen zozketa zenbakia



Ikasbidaiko zenbaki saritua, 3956-a izan da. Sarituak deitu zezala 943751474 telefonora.

70 gaztetxo urpeko ikastaroan



Atxolin Guraso Elkarteak antolatuta, egun hauetan buzero ikastaroa egingo da igarilekuan. Ikastaroak izu-


garrizko arrakasta izan du gaztetxoen artean eta 70 neska mutikok baino gehiagok eman dute izena.

ESKERTZA

Urtarrilaren 23an Donostian hil zen
XABIER IÑURRIETA GOIKOETXEA
Goian bego



Familiak bihotzez eskertzen ditugu bere azken egunetan izan zituen bisitak eta laguntza, Donostia Ospitaleko profesionalena batez ere. Aldiz berean, heriotzaren ondoren atsekabeen lagun izan zaituztegun eta hibelara edota hiletara hurbildu zineten guztioi, mila esker.



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)



EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Aratustiak 2004



Zapatu arratsaldian txarangak bizitu zittuan baztarrak. Gabian emozionatuta zebilen jentia, martitzenian baino gehituago, nahiz Plaentxiako egun mitikua martitzena izan edo izatia nahi. Giro polita izan zan, jente larregi bez, batez be Plaza Zaharreko berbernan, eta ondo. Urtero moduan, izan ziran beste danak baino gehixao argi egin zeben izarrak. Ez dogu izenik esango, zeuek etara kontuak. Argazkixak eta egoeria deskribatzen zertan hasiko gara ba. Hori bai, esan bihar dogu, nagusitxueri etaratako argazkixak gauerdixa baino len etara genduzela. Eskerrak... eskumiar.



Aratustiak 2004



Ezin aittatu barik laga hirukote mexikarra. Ze ahots, ze postura, ze erresistentzia, ze entrega, ze bigote... ikeragarriye mutilak! El año que viene vuelnan otra vez!

Eibarrerako autobusan zain be harrapau genduan eskirol mordoxka bat. Ai, ai, ai! Plaza Zaharreko berbenia laga eta zela juan leike hor zihar?

Martitzenekua beste kontu bat izan zan. Mozorro lehiaketak beti erakartzen dabe jentia, ikusle moduan eta tira, elkarren onduan ba gustora. Partehartzailiak, danak klasikak. Hori bai, munduan batekuak holakue-tarako eta ondo merezitta eruan zittuen euro apurrok.

Eta besterik barik, gaztetxxuak lo eta nagsituak lanian harrapau ginttuan... asteazkenak!

KREA

Barrukaldeko arkitektura eta dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI

TEL.: 943751183 / 635731268

E-MAIL: ainhoalete@hotmail.com



TXURRUKA

JATETXEA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Herriko farolak "haikutu" dituzte



la herriko farola guztietan jarri dituzte haikuak.

Joan zen domekan, ezezagun batzuek, haikuak itsatsi zituzten herriko ia farola guztietan. Haikuak olerki laburrak dira, irudi bat edo egoera bat imajinatzen laguntzen dutenak. Olerki molde honek Japonian du jatorria baina oso zabaldua dago.

Herriko faroletan itsatsitako haiku gehienek herriko irudi eta egoerez dihardute, jendeari pentsarazi eta gozarazi nahian. Hona bildu ditugun batzuek:

*Aquadillaka
lejia potiari
presako ura.*

*Buru gainean
izara grisak ditut*

euria dator.

*Fatxadetako
suge bizigabeak
geldirik daude.*

*Hanka kojoka
pikatzen dao usua
txikle artian.*

*Artatxorixa
afariketari beti
arra enredatzen.*

*Trenbidetikan
amama bat bezala
badator gaua.*

*Ibetonduan
geldi dago paittaa
ufala doia.*

*Ogi sikua
biguntzeko zain dago
paittaa zaharra.*

*Izotza egin dau
ar eta emiak lo
duelarik ez gaur.*

*Kontzejupian
jaleorik ez dago
errespeta.*

*Kontzejupean
txikitero zuhurra
lagun egarriz.*

*Txorixa gelan
okupa sartu jata
aterpe bila.*

*Erregetxian
luzelektrikunpaluk
kalia argitzen.*

*Zuk ez hitzegin
nik ez dut egingo ta
ea non den muga.*

Ederrak benetan!

Film laburrak martxoaren 12an



Euskara Elkartearen Federazioak Jaurlaritzarekin batera euskal zinemagintza ezagutzera eman asmoz, aurtengo martxo eta apirila bitartean film laburren emanaldiak antolatu ditu Euskal Herriko hainbat herritan. Alde batetik, euskaraz egindako zinea ikusteko aukera zabaldu nahi da eta bestetik, euskal zinegileei euren lanak erakusteko zirkuitu duina eskaini nahi zaie.

Soraluzen Pil-pileanen eskutik datorren martxoaren 12an, 20:00etan kapillan bost film laburren emanaldia egingo da:

BELARRA (Koldo A.)

TERMINAL (Aitzol A.)

DORTOKAREN UHARTEA (Maru S.)

BASURDEA (AneA.)

Guztira, ordubete iraungo duen emanaldiarekin batera, Ane Muñoz, Basurdea film laburraren zuzendaria bertan izango da galderei erantzun eta bere lanari buuz hitzegtiko.

Kontrargiren erakusketa



Kontrargi Argazki Kolektiboak argazki erakusketa berri bat antolatu Kiroldegiko erakustoki gelan. Bertan, Alfonso Cruz, Isaac Zamakola, Mikel Valero, Fernando Oregi, Julio Mendikute eta Gorka Soraluze taldekideen argazkiak izango dira ikusgai. Erakusketa martxoaren 2tik 18ra izango da zabalik ohiko ordutegian.

Txatxilitxatxi hasiko da berriz martxoan

Martxoaren 13an hasita, Txatxili-txatxi haurrendako aisialdiko programa hasiko da, Udalak, Plaentxi H.I. k eta Eusk. Aho. Batzordeak antolatuta. 6 Saio izango dira guztira, larunbat goizetan. Izena emateko prezioa 6 eurokoa da eta martxoaren 2a baino lehen egin behar da ikastetxean bertan.



aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
Faxa 943 75 22 95
20590 Soraluze

Juan Mari
Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Unai Larreategi

EHE-ko kidea

“Euskara ofiziala dan Euskal Autonomi Erkidego honetan, oindio erderaz egin bihar dotsagu geuk ordaintzen dotsagun medikuari? ezin da onartu.”

Joan zen urtean Egunkaria itxi zenean, Kontseiluak inoiz baino ozenago aldarrikatu zuen euskara babesteko akordio soziopolitiko zabal baten beharra zegoela. Azken hilabeteotan, erronka horri heldu eta Ekintza Plana izeneko egitasmoa garatzeko lanari ekin dio Kontseiluak. Soralezeko Euskalgintza (AEK, EHE, Pil-pilean) ere hasita dago dagoeneko herrian hori zela garatu pentsatzen. Bestalde, datorren larunbat arratsaldean, epaitegien zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidearen alde, manifestaldiak egingo dira Bergara eta Gernikan Euskal Herrian Euskaraz talde euskalzaleak deituta. Unai Larreategi EHEko eta euskalgintzako kide da herrian eta berari galdetu diogu euskararen aldeko ekimen hauen inguruan.

Zer da Ekintza Plana?

Ekintza Plana hizkuntza eskubide eta konpromezuetan oinarritzen dan plan edo egitasmo bat da. Euskarak jaso dittuan eta seguruenik jasoko dittuan eraseri (Egunkarixaren itxiera, argitaletxietako miaketak, enbarguak, euskalgintzaren kriminalizaziñua) ahalik eta egokixen erantzutia eta beti kolokan ibiliko ez garan babes egoera batera heltzia da helburu nagusixa. Plan horretan hiru bide jorratuko dira; lehenengua. akordio soziopolitikua litzake, bertan Euskal Herriko alderdi eta sindikatu ezberdinei euskalgintza babesteko konpromezuak hartzia eskatuko jakue, bigarrena, herriko gizarte-eragile eragiliak lanian jartzia litzake euren erakundietan normalkuntza planak martxan jarrixaz eta hirugarrena, norbanakuen konpromezua litzake.

Zer egiteko asmua daukazue herrixan?



Unai Larreategi

Herrixetan bi bide jorratuko dira, gizarte-eragiliena eta norbanakuena baina Soraluzen norbanakuena bakarrik eruango dogu aurrera, herrixan gizarte-eragile ezberdinak aspalditik diharduelako lanian Bai Euskarari eta Euskara Merkataritza normalkuntza planen barruan.

Norbanakuen konpromezuak zela jaso diseinatzen hasitta gare eta Aste Santu inguruan hasiko gara jasotzen. Herriko jende ezagunagana juango gara hasiera baten baina gero herritar danak eukiko dabe konpromezuak hartzeko aukeria.

Herrixan zein urraketa azpimarratuko zenduke euskararen inguruan?

Eguneroko bizitzan topau geinkez horren adibidiak. Soraluzen esateko, anbulatorixua hor dago, publikua da baina Osakidetzak ez dau oindio euskararen normalkuntza lortzeko planik

martxan jarri. Urtetan eta urtetan agindu dabe baina ez da bete. Euskara “ofiziala” dan Euskal Autonomi Elkartian, euskaldunok oindio erderaz egin bihar dotsagu geuk ordaintzen dotsagun medikuari? Ezin da onartu. Udaberrixan EHEtik kanpaina bat hasiko dogu herrixan, tartian sinadura bilketa bat be bai.

Epaitegixetan euskaraz egiteko eskubidiaren alde be mugimendu haundixa dago ez?

Bai. Zapatu honetan Bergaran eta Gernikan egingo dira manifestaziñuak justizia administraziñuan dagan egoeria salatzeke, manifestaziñuak Udaltzeko Plazatik urtengo dau arratsaldeko 18etan. Bergarako epaitegixan egoeria benetan da kezagarrixa. Bertako langilien ehuneko oso gutxik daki euskaraz eta epaile euskaldunik ez daguanez ezin izaten da epaiketa bakar bat be euskaraz egin. Horixe da gertatzen dana.

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA ENLAIATUAK

etxera

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ

KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA

ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Atletismoa**Azkona Espainiako 4., nagusietan**

Joan zen asteburuan, Valentzian jokatuz Espainiako absolutu mailako atletismo probetan 4. postua eskuratu zuen jauzi hirukoitzean Azkonak. Arratek 13,26 metroko jauzia egin zuen hirukoitzean (bi aste lehenago 12,73m) eta horrekin lortu zuen nagusien mailako laugarren postua eta Euskadiko errekorra ere bai. Alturako frogan ere parte hartu zuen baina prestatu gabe.

Oso gustora dago Arrate lortu duen emaitzarekin eta entrenatzen jarraituko du udako txapelketetarako prestatzen.

**Pelota****Laskurainen garaipena Tolosan**

Laskurainek eta Chaffek 2.mailako binakako txapelketako finalerako txartela eskuratu zuten joan zen asteartean Tolosan. Laskurainek eta Chaffek 22 eta 11 hartu zituzten mendean Arbizu eta Begino. Finala, datorren martxoaren 6an jokatuko dute Medina eta Leitzaren aurka. Finalean ere, Laskurain peñakoak Haritzen ondoan izango dira. Ia txapela ekartzen duan!

**EMAITZAK****Futbola**

Otsailaren 14-15eko jardunaldia
SORALUZE 3 - Orioko 1 (Erre.)
SORALUZE 2 - Eibartarrak 0 (Juben.)
Ikasberri 3 - SORALUZE 2 (Kadet.)

Otsailaren 21-22ko jardunaldia
Atsedena (Erre.)
Internazionala 3-SORALUZE 0 (Juben.)
Atsedena (Kadet.)

Esku pilota

Haritz Laskurain
-Otsailaren 15ean
Logroñoko Adarragan-Berraondo - Eulate 11
Chaffe - Laskurain 22

- Otsailaren 24an Tolosako Beotibar-en-Chaffe - Laskurain 22
Arbizu - Begino 11

Atxotegi eta Garzia
(Udaberri Txapelketa)

Eduurratik bertan behera gelditu zen Errealeko taldearen aurkako partidua. Horren ordez beste hauek jokatu zuten:

Aitor Atxotegi - Asier Fernandez 22
Koldo Heriz - Jon Heriz 11

AGENDA**ASTEBURUAN****Futbola**

Pedrusko - Soraluze (Erreg.)
Soraluze - Antoniano (Juben.)
Eibartarrak - Soraluze (Kadet.)

MARTXOAREN 6AN

2. mailako eskuz binakako finala.

MARTXOAREN 14AN

Ibilaldi neurtua Aretxabaletan
(Mendi Taldetik autobusa)

IV. URTEURRENA**BENAN RODRIGUEZ**

Goian bego

2000.ko otsailaren 28an hil zen

Atzo nire konpainian, gaur nire oroimenean, betirako nire bihotzean!



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

**MENDIZABAL****OKINDEGIA**

Kalebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Pedro Lete

"Amak baino soineko gehixao daukat gordeta"

"Pedri" Lete ezaguna da herrian aratosteetan jazten dituen mozorro ikusgarriengatik. Aurten, zapatu gauen bakarrik irten zuen, lotsak etxean lagata, "ipurdi bistan" berak dioen moduan. Zapatuan ez genuen harrapatu baina asteazkenean bai. Mozorroez eta aratusteez berba egin dugu eta tartean lagun zituen Mari Tere eta Inaxirekin ere gogoratu ditu. Bejondeiala!

Izena,abizena eta adina.

Pedro Lete Lakuesta, 50 urte.

Disfrazatzeko gogua noiztik dator-kizu?

Betidantik. Plaentxian karnabalak hasi aurretik Elgoibarko diskoteka batera juan nintzan. Plaentxian hasi ziran urtian, 1979xan gutxi gora behera, kriston goguakin jantzi nintzan.

Ze nahixago dozu aratustetako zapatua ala martitzena?

Lehen Plaentxian martitzena zan egun nagusixena eta jente askok urtetzen zeban, oin gehixao urtetzen da zapatuan. Neri bixak gustatzen jataz. Aurten martitzenian lana neukan gabeko hamarrak arte eta ez dot urten.

Zela ikusten dituzu plaentxiko aratustiak oin?

Bajatu egin dira, baina ez hemen bakarrik, zapatuan eibarren be egon nintzan eta igual zeguan hamen jente gehixao Eibarren baino.

Lehendik hona jentziak galdu egin dau jazteko grazia ?

Ba izan leike, gogua euki bihar da. Nik nere jantzixak neuk prestatzen ditut; diseñua, margotzia... dana.

Garestia irtetzen da zure disfraz bat eittea?

Ba segun, garestia baino lana. Ba igual hilabete eta erdi lehenago hasten naiz jantzixakin.

Jantzi danak gordetzen dituzu?

Bai, danak dauzkat gordeta. Amak baino soineko gehixao daukat.

Karnabaletako momenturik one-



Pedro Lete aurtengo ihauterietan mozorrotuta na?

Disfrazatzen prestatzia.

Eta txarrena?

Etxera juandakuan marguak kentzia

Batzuk lotsatu egitten dira jazten eta beste batzuk ondokuakin.

Nere aitak esaten zeban moduan! Ba hor konpon Mari Anton, txakurrak buz-

Bertso Begiz

Pedri Lete da Plaentxiako aratustien egia, berak badaki zela etara mozorroari magia ziriak eta bromak jantzi txar edo onak biluzi bihotz erdia, egun baterako askatasuna, hori da ihauteria.

Neko

(Doinua: Iparragirre abila dela)



Aurreko urteetako aratosteetan ateratako argazkiak

Mendata taberna




Berezitasunak:
Txipirotiak, Barazki
Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak

Santa Ana, 20 Behea
Tfnoa: 943 75 12 41
Sakeleko tfnoa: 639 17 96 96



Argazki zaharra



“1952ko despedidia”

Argazkian, M^a Luisa Gorostidiren despedidako argazkia frontoi ondoko etxearen aurrekaldean. Ezkerretik eskuinara eta goitik hasita, Rufina eta M^a Isabel Aranburu (Oñatiarrak), M^a Luisa Murua, Rosario Izagirre, Carmen Zubiaurre, Carmen Kerejeta, Arantxa eta Calista Gorostidi (oñatiarrak), Esperanza Ondarra, M^a Luisa Estebaliz, Sagrario Ondarra, Angelita Alberdi, Anita Hernandez, Modesta Gallastegi, Benita Onaindia (+), Asun Gorostidi, Gloria Campos, M^a Luisa Gorostidi, Heradia Maiztegi, M^a Asun Ariznabarreta, Conchita Iriondo eta Milagros Etxaniz agertzen dira.

Joseba Gorostidik lagatako argazkia.

Lehiaketa



**Aurreko
alean...**



Zer dago faltan edo zer soberan honetan?

***Bi lagunendako
afari mundial bat
irabazi zeinke!!***

Deitu:

943 75 13 04 ra

edo bidali e-mail bat:

pilpilean@euskalnet.net era

erantzuna... Illordo basarrixa 3 aldiz agertzen zan.

...eta irabazlea: AITOR PRIETO
(24 partehartzaile)

تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ

**GAZTELUPE
taberna**

tel: 943 75 20 81

تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ تښتوټېچ

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Ugaraxo



Aratustiak 2004



Plaentxi H. I. eta Pil-pilean aldizkarixa elkarlanian
ALDIZKARI HONEK UDALAREN DIRULAGUNTZA JASOTZEN DU
EUSKARA BULTZATZEKO



Debabarrena ezagutzen

Otsailaren 2an, eta urtero egiten dugunez, aurten ere Deba Barrena ezagutzeko irteera egin genuen.

Lehenengo geldiuena Mendaron izan genuen. Bertan Kilimon ibaiadarra eta Deba ibaia elkartzen diren tokia ikusi genuen.

Bigarren geldiuena Ondarrun izan zen (kontuz herri hau ez da gure bailarakoa) eta han

gauza ederrak ikusi genituen. Arrantzaleen kofradixan egon ginen. Han arraina egunero nola saltzen den ikusten egon ginen. Gero gu erosleak izango bagina froga egin genuen. Honi arrain subasta deitzen zaio.


Handik irtendakoan izotz fabrikara joan ginen. Turbina handi batzuetan ura sartu eta handik 10 segundutara izotza bihurtzen zen. Gero oinez, eta itsasertzetik, Saturrarane -

raino joan ginen eta bat baino gehiago olatuek blai eginda utzi zuen. Ba al zenekien bertan "Barnetegia" programaren etxea dagoela?

Deban bazkaldu ondoren Elgoibarrera trenez joan ginen, handik gero autobusez Soraluzera itzultzeko.

Zein egun zoragarria izan zen!

3. mailakoak



Ihauteriak Ikastetxean

Aurten ere ihauteri festak iritsi zaizkigu, mozorrotu eta ondo pasatzeko jaia.

-Kaixo, zer berri?

ÿ Ihauteriak laster direla.

ÿ Eta zuen gela nola mozorrotu behar da?

ÿ Harriketarrez, antzinako pertsonak bizi ziren bezala, beno baina modernoagoak e! Harrizko kotxeak eta telebis-tak ditugulako

ÿ Eta zuek?

ÿ Sorginez, baina sorgin bihurri xamarrez; korrika, sal-toka eta hegan egiten baitugu.

ÿ Eta besteak?

ÿ Lanbide desberdinetaz. Langile alperrak dira eta lanik egin nahi ez dutenez alferraren astea dantzatuko dute.

ÿ Ene, ni ere horiekin ondo konponduko nintzateke. Eta nagusienak?

ÿ Uf, horiek eguzkiari eta ilargiari egiten dizkieten dan-



Ekitaldia bi aurkezle bikainek gidatu zuten.

tzak oso politak dira. Indioak su inguruan dantzatzen dute eguzkiari indarra bidaltzeko, handi egiteko eta beraien aztiak, hetxizeroak, sopa beroa prestatzen du guztiek indar berrituz, udaberrian pozik eta alai sar daitezten.

ÿ Ai, zer beldurra, indioak!

ÿ Eeeez! Ondoren, beraiak

inguratzen bakeroak jarriko dira. Hauek ilargiari dantzatzen diote baina hura haserre ez dadin, gauean bere argi xumea luzatzen jarrai dezan.

ÿ Eta indioak eta bakeroak etsaiak dira? Borrokan egiten dute?

ÿ Ez, txotxolo. Denak dira eguzki eta ilargiaren lagun, beraz beraien artean ere adiskideak dira eta denen artean hartzen dute aztiak prestatutako sopa beroa.

ÿ Eta guretzako soparik badago? Gu ere adiskideak gara, ezta?

ÿ Bai!!! Guretzat aztiak prestatutako txokolate beroa dugu, gainera bizkotxoarekin. Guk ditugun aztiak oso bereziak dira, zer pozina goxoa prestatzen diguten.

ÿ Noski, dantzan eta jolasten jarraitzeko indarra ematen diguten.



Uzindarrek, urtero moduan, txokolate goxo goxo prestatu zигuten.



Lehiaketa eguna



Martitzeneko lehiaketa izan zineten? Bai ezta?

Ta, zer pentzau jatzuen?

Jubilatu Martxosuak gelditu ziran lehenengo eta Las TXenoas bigarren.

Lehiaketa ikusle moduan izan ziran lau lagun gonbidatu dittugu, (hor behian darenak), lehiaketa zer pentzau jakuen jakitzeko.

Ia zer diñuen!



MIGEL

Irabazi daben taldiak batzuk esaten dutenez lendik asmatuta zegoen dantza bat aurkeztu dute.

Las Chenoasak ez jatasen ezebez gus-tau, nere uztez pijuegi-xa izan zan, eta sarrena plajio bat izan zan



JONE

KRITIKUAK

Bixak izan ziran txarrak, gure kuadrilako ixa inori ez jakon gustau. Gu aurkeztu izan bagina geuk irabaziko genduan.



GAIZKA

KATIA



Ondo egon zan baina jente gutxi aurkztu zan. Berbenia ondo egon zan gehixenbat aste arteartekua.

kimuak



2004

Euskara
Elkarteen
film laburren
zirkuitua

Martxoaren 3tik apirilaren 3ra



Basurdea

ANE MUÑOZ 14'



Beiarra

KOLDO ALMANDOZ 10'



Dortokaren Uhartea

MARU SOLORES 15'



Terminal

AITZOL ARAMAIO 12'



Topeka

ASIER ALTUNA 3'30"

EGUNA

ORDUA

TOKIA

MARTXOAREN 12AN

20:00ETAN

KAPILLAN

Antolatzailea






Babeslea



Hernani (Dobera), Oion (Tiki-ttaka), Deba (Zuhatza), Erandio (Berbots), Balmaseda (Berbetan), Soraluze (Pilpilean), Mutriku (Karenka), Getxo (Bizarra lepoan), Altsasu (Bierrik), Santutxu (Asapala), Ermua (Euskal Birusa), Etxarri-Aranatz (Bierrik), Durango (Berbaro), Areatza (Ganoraz), Deustua (Berbaizu), Azkoitia (Maxixatzen), Aiara (Hogeitalau), Irun (Irun iruten), Atarrabia (Karrikaluze), Oñati (Laixan), Irurtzun (Bierrik), Arrasate (AED)

SORALUCE

Fresaketa teknologia



SORALUCE

GRUPO DANOBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

OITXURRI

tel. 605768151
GABOLATZ
28 BEHEA



ARDORIK ONENAK
OITXURRIRENAK!

urteko ardoak - 2 € tik aurrera
BALAGU
BASOCO
MITARTE
f. fdez gomez



KRIANTZAK - 4,50 € tik aurrera
h. de don tomas
SOLAGUEN
VALSERRANO
PIEROLA

ERRESERBAK - 9,50 € tik aurrera
VALSERRANO
SOLAGUEN
PIEROLA

EZOZIA JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE